



2018ko MEMORIA



Eusko Jaurilitzaren
Informatika Elkartea

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco

ERALDAKETA DIGITALA, **AUZOLANEAN**



Eusko Jaurkitzaren
Informatika Elkartea

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco



Gaur egun, aro digitalean natibo diren pertsonak nahiz mundu horretara beranduago iritsitakoak Euskadiko herri administrazioarekin elkarrekintzan aritu daitezke, izan ere, gure instituzioak eraldatu eta sektore publikoaren buruan ipini ditugu, egungo araudiak ezarritako funtzionamendurako oinarriak % 95ean betez.

Eraldaketa digital beharrezko hori ezinezkoa zatekeen ezinbesteko osagaiak behar bezala uztartu gabe: kualifikatutako eta aldaketarako prozesuekin konprometitutako pertsonak, IKT teknologien azken joerak orekatzen dituen teknologia bat informazio-sistemen eskuragarritasun eta segurtasuna bermatzen duen azpiegitura batekin, eraginkortasunari dagokionez eskatzen diren mailak ziurtatzen dituen zerbitzurako deiera bat, erabilgarri dauden baliabideen efizientzia eta, gauza guztien gainetik, kudeaketarako gaitasun aurreratua, ingurune aldakor honetako iguripenei aurrea hartzea ahalbidetzen duena, demanda zerbitzu digital gehiago eskainiz eraldatuz.

Eta EJIE, Eusko Jaurlaritzak sortutako erakundea, da osagai horiek konbinatu eta gure sektore publikoak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuetako eraldaketa digitala ahalbidetzen duena, izaera unibertsaleko zerbitzuak hobeto eta efizientzia gehiagoz emateko, egoera ahulenean diren pertsonak albo batera utzi gabe, Auzolanaren espiritua hartuta, guztion onurarako lan partekatua eginez.


Beste urte batez, hemen dira haren jarduerak, lorpenak eta emaitzak.

Nerea Karmele López-Uribarri Goicolea

Administrazio Kontseiluko presidentea

ANTOLAKUNTZA EGITURA





MISIOA

IKUSPEGIA

Lidergo teknologikorako gure helburua, eskaintzen ditugun zerbitzuen kudeaketa eraginkorra, segurtasun eta sendotasunaren arteko dialektika eta egokitzapen eta berrikuntzarako gaitasuna lagungarri izan zaizkigu gure misioa, ikuspegia eta balioak berriro zehazterakoan.



BALIOAK

Funtsezko 10 balio ditugu gure burua definitzeko:



Taldeko lana



Nortasuna



Konfiantza eta segurtasuna



Irtenbide onena ematea



Beste batzuekin lankidetzan egitea



Jasangarritasuna



Berrikuntza



Bezzeroekiko hurbiltasuna eta konpromisoa



Gardentasuna



Genero-berdintasuna

Plangintza estrategikoa



Estrategia

Misioa bete eta Ikuspegia erdiesteko beharrezkoak diren kudeaketa-sistemak eta proiektuak hedatzea, interes-talde ezberdinetan erreparatuz, abaguneak aprobetxatuz eta arriskuak minimizatuz.



Bezeroak

Euskal Sektore Publikoak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen digitalizazioa ahalbidetzea, bere helburuak hobeto eta efizientzia gehiagoz bete ditzan.



Pertsonak

Zerbitzuak modu efizientearen emateko giza talde kompetente bat mantentzea, eta erakundearen estrategiarekin konprometituta egongo dena.



Gizartea

Gure gizarte-ingurunea hobetzea gure erakundearen ahalmena aprobetxatuz eta eraginkortasun baliabideak modu eraginkorrean kudeatzea gure ingurumen-inpaktua minimizatzeko



Berrikuntza

Gure prozesu eta zerbitzuak etengabe hobetzea eta sektore publikoaren abangoardian mantentzeko eskatzen diren berrikuntzak zentzuz gaineratzea



MISIOARI DAGOKIONEZ

Urteko **kudeaketa-planen eraginkortasuna** bermatzea
Barne-kontrol eta **aurrekontu aldetiko oreka** bermatzea
Erakundeko **prozesuen eraginkortasuna** bermatzea

Zerbitzuen mailako akordioak bete daitezela bermatzea
Zerbitzuaren **kalitatea eta segurtasuna** bermatzea

Pertsonen **segurtasuna eta osasuna** bermatzea
Pertsonen **trebetasunak eta garapena** bermatzea
Genero-**berdintasunaren** ikuspegia bermatzea

Ingurumen- eta energia-kudeaketa bermatzea
Ingurumen-inpaktua murriztea
Euskararen erabilera bultzatzea
STEM deierak bultzatzea

Prozesuak etengabe hobetzea
Berrikuntzaren eraginkortasuna bermatzea



IKUSPEGIARI DAGOKIONEZ

Eusko Jaurlaritzaren Aurrea aitortza eskuratzea
Administrazio Kontseiluaren aldetik asebetetze-maila handia erdiestea

Erakundea **bezero-zorroa** areagotzeko gaitzea
Konbergentzia-planeko zerbitzuen dokumentu-zorroa hedatzea
Bezeroen aldetik asebetetze-maila handia erdiestea
Enpresa hornitzaileen aldetik asebetetze-maila handia erdiestea

Erakunde osasuntsu modura **aitortza adierazgarria** eskuratzea
Pertsonen aldetik laneko giroari dagokionez **asebetetze**-maila handia erdiestea
Trebetasunarekin lotutako irizpideen maila bikaina erdiestea, modu asebetegarrian balioetsia

Erakunde jasangarri modura **aitortza adierazgarria** eskuratzea
Euskararen kudeaketagatik **aitortza adierazgarria** eskuratzea
Gizartearen aldetik asebetetze-maila handia erdiestea

Idea berritzaileen sorrera sistematizatzea
Proiektu/erakunde osasuntsu modura **aitortza adierazgarria** eskuratzea

Kalitatezko kudeaketarako gure eredua

Kudeaketa eredua aurreratua (KEA)

KEA ereduan barneratzen diren 6 elementu nagusiak dira: Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Gizartea, Berrikuntza eta Emaizak dira EJIE erakundearen lehiakortasuna egituratzeko oinarriak, esparru ezberdinetatik emandako kudeaketa-konzeptuak txertatuz.



Gogoeta estrategikoa

2015ean Euskalit fundazioak kudeatutako kudeaketa aurreratutako Zilarrezko A Aitortza eskuratu ostean, gure lantaldeak konpromiso irmoarekin jarraitzen du zerbitzuaren Berrikuntza eta Kalitaterako Politika hedatzearekin eta Berrikuntza eta Kudeaketa Kudeatzeko **SGiQ** Sistema etengabe hobetzeko prozesuarekin.

Bi dira, funtsean, EJIE erakundearen Zerbitzuen Berrikuntza eta Kalitatea-ren politikaren printzipio orokorrak:

Aplikagarri diren betekizunak betetzea:

Zerbitzuetan aplikagarri diren betekizunak bete daitezela ziurtatzea, erakunde bezeroen premia eta iguripenak nahiz arauzko edo erregelamenduzko betekizunak barneratuz

Kudeaketa-sistema etengabe hobetzea:

Kudeaketa-sistemaren prozesuetako berrikuntza eta etengabeko hobekuntza ziurtatzea, haren heldutasuna nahiz espero diren emaitzak ekoizteko ahalmena areagotuz

Jarraian 2018an zehar printzipio horiekin lotuta erregistratutako adierazleen emaitzak islatzen dira:

Aplikagarri diren betekizunak betetzea:


- Adostutako zerbitzu-mailen %90 bete da
- Bezeroen Asebetetze-indizea 7,9 puntukoa, 10etik
- Prozesuen kontrolarekin lotutako helburuen %83 bete da

Kudeaketa-sistema etengabe hobetzea:

- Prozesuko adierazle gakoaren Hobekuntza Garbiaren Indizea -%8,4
- Prozesuen gainean erdietsitako heldutasun-maila 3,8 puntukoa, 5etik
- %87ko eraginkortasuna berrikuntza-proiektuetan

Ejie

Gure interes-taldeekin dugun harreman-esparruari esker hobekuntzak eta proiektuak esku-hartze eremu ezberdinetan heda ditzakegu.



- Kudeaketa integratua, hala berrikuntza gorakorrena (etengabeko hobekuntza) nola muturrekoarena (berrikuntza-proiektuak) prozesu eta zerbitzuetan.
- Gure interes-taldeei balioa emateko helburua gure berrikuntza-estrategiako emaitzak identifikatu eta ebaluatzeko esparru gisa.
- Berrikuntza-proiektuak zentzuz gaineratzea, arrisku eta abagunearen analisia gainditzin ez duten ikerketa edo garapeneko lanaketan inbertsioa egitea ekiditeko.
- Horiek sektore publikoaren abangoardian mantentzeko helburua, gure berrikuntza-estrategian oinarrituta.

Konpromisoa GIZARTEAREKIN

Ejie



EJIE erakundeak hartu dituen zenbait konpromiso:

1. Gure jardunak ingurunean duen inpaktua murriztea ingurumen- eta energia-kudeaketarako sistema zorrotz bat txertatu eta ziurtatuz.

2. Gure jardunaren gardentasuna ziurtatu eta bultzatzea erakundeak sortutako interes publikoko informazioa hedatuz eta gizarteak egindako kontsultei erantzunez.

3. Euskal IKT sektorearen eta IKT zerbitzuak kudeatzeko praktika onenen **sustapenean modu aktiboan parte hartzea** sektorean adierazgarriak diren erakundeen eta haietako lantaldeen bidez, nahiz helburu horrekin antolatzen diren ekitaldien bidez.

4. Berrikuntza eta kudeaketa aurreratua sustatzen duten euskal erakundeekin lankidetzan aritzea, eta beren lantaldeetan nahiz helburu horrekin antolatzen diren ekitaldietan parte hartzea, hala sektore publikoaren eremuan nola orokorki.

5. Herritarren artean eta administrazioan euskararen erabilera ahalbidetzea.

6. Lankidetzaz-esparruak finkatzea Euskadiko unibertsitate eta ikastetxeekin ezagutza eta baliabideak partekatu eta IKT profesional berrien prestakuntza ahalbidetzeko.

7. Aukera-berdintasuna defendatzea gure esku-hartze eremu guztietan.

8. EJIE erakundearen balioak partekatzen dituzten beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea eta beren lantaldeetan eta antolatzen diren ekitaldietan parte hartzea.



EJIE erakundeak jakin badakigu zer-nolako inpaktua dugun gizartean, ez soilik gure misioa garatzetik eratorritako ingurumen- eta energia-alderdiei dagokienez, baizik eta ingurunean modu positiboan eragiteko dugun ahalmenagatik ezagutza, baliabideak, jardun onak eta ikasitako ikasbideak partekatuz eta gure balioak partekatzen dituzten beste erakunde batzuetako ekimenak babes-tuz.

GUERE ERRONKA

STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) deieren ikuspegi positiboa bultzatzea, bereziki, Informatika eta Telekomunikazioekin lotutakoena, Euskadiko pertsona gazteen artean, eremu horietan goi mailako ikasketak egiteko adorea har dezaten.

EUSKARAREN ERABILERARAKO NORMALIZAZIO-PLANA

2018an Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera normalizatzeko VI. plana ipini zuen abian, 5 urteko iraupena duena

Plan horretan dei egiten zaie Eusko Jaurlaritzako sailetara atxikitako Sozietate Publikoei plan orokorrean oinarrituta beren normalizazio-planak abian ipin ditzaten.

Ejje erakundearen euskara-batzordeak plan estrategiko berria diseinatzeko agindua jaso zuen, Zuzendaritzari abenduan aurkeztu zitzaiona. Plan estrategikoak adieraziko du euskararen normalizazioari dagokionez zein bide hartu datozen urteetan.

SEGURTASUNA

EJIE erakundeak sortu eta kudeatzen duen informazio guztiaren eskuragarritasun, osotasun, konfidentzialtasun, trazabilitate eta egiazkotasunaren alde egiten du. Arlo horretan ahuldadeen kudeaketak hainbat hobekuntza burutu dira:

Modu orokorrean azpiegitura eta zerbitzuetan aldizka hauteman eta aztertzerako bideratutako plataforma bat txertatu da. Horrek konponbideetarako estrategia egokiago bat zehazteko aukera ematen digu

Garapenaren bizi-zikloan ("SDLC") segurtasun interaktiboaren azterketarako plataforma bat ("IAST", "interactive application security testing") hedatu da, segurtasunaren kudeaketa izapidetze-plataforman eta neurrirako garapenetan txertatzeko aukera ematen diguna.

EXITALDIAK ETA ALBISTEAK

Udako ikastaroa: II gobernu digitala, ereduak eta erreferentziak.

Bi egunez, mundu osoko hainbat adituk digitalizazioak erakunde, administrazio eta herritarren artean izandako arrakastaren gakoak jorratu zituzten, etengabe bilakaeran, hobetzen eta helden ari den prozesua

Eusko Jaurlaritza dagoeneko Blockchain teknologia eta Adimen Artifiziala aplikatzeko lanean ari da zerbitzu publikoak emateko moduan iraultza sortzeko

Ikastaroari Josu Erkorekak, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailburuak, eman zion hasieran "EHUko Udako Ikastaroak" esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) antolatuta, bertako Zuzendari Nagusia den Alex Etxeberria ikastaroko zuzendari izan zelarik.





KONEKTA GAZTEA Proiektu Pilotua

EAEn aitzindari, helburua IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) adineko pertsonetara hurbildu eta horiei arrakala digital izeneko gaitasunak laguntzea zen.

61 gazte eta 104 helduk parte hartu dute Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta Hezkuntza Sailak, Gasteizko Udalaren lankidetzarekin, elkarren artean bultzatu duten proiektuan.

Proiektuan zehar ate irekien bi jardunaldi burutu ziren Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartean (EJIE) instalazioetan, Los Herran eta Mendebalde ikastetxeetarako. Horietan ikasleek berdintasunari buruzko ikaskuntzak jaso zituzten Emakunde erakundearen eskutik, bi hitzaldi –Gauzen Internetari eta Errealitate Birtualari buruz, hurrenez hurren– entzun zituzten, eta EJIE erakundearen Datuek Prozesatzeko Zentroa bisitatu ahal izan zuten.

ASLAN 2018 SARIA

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartek (EJIE) saria jaso du Euskadiko Herri Administrazioak sortzen dituen datuak kudeatu eta biltegitatzeko bere plataforma dela eta.

Proiektuak urtero @asLAN elkarteak ematen dituen "Eraldaketa Digitalerako Proiektuak Administrazioetan eta Organismo Publikoetan Sariak" izenekoaren sarietako bat jaso du. Jatorria BATERA ekimenaren hastapenean dago, Eusko Jaurlaritzak IKT arloan duen konbergentzia-prozesua.

Alex Etxebarria EJIE erakundeko Zuzendaritzak jaso zuen saria erakundearen izenean ASLAN2018 Kongresuaren esparruan ospatutako galan, eta "Herri Administrazioetako Teknologien Adituen Urteroko I. Topaketa Nazionalarekin" bat eginez.



DEIA-VODAFONE Saria

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburua eta Eusko Jaurlaritzako Bozeramaile den Josu Erkorekak jaso du 'Vodafone Deia Berrikuntza herritarren zerbitzura' izeneko saria, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteari aitortua, Bilboko Guggenheim Museoaren Auditoriumen ospatutako ekitaldian.

Sari honekin Deiak EJIE erakundeak Eusko Jaurlaritzaren inguruan dauden eragile guztien zerbitzuak hobetzeko urte hauetan izandako bilakaera etengabea saritu nahi izan du.

Ekitaldian Josu Erkorekal azpimarratu duenez, berrikuntza ez da egun bateko fruitua izaten, baizik eta bide bat urratzearen ondorio. Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburu eta Eusko Jaurlaritzako Bozeramaileak gaineratu duenez, eraldaketa digitala hastapenetik izan da lehentasunezko helburua Eusko Jaurlaritzan, teknologia ez baita ahantzi daitezkeen ezer.

Ekitaldian izan dira, era berean, EJIE erakundeko Zuzendari Nagusia den Alex Etxebarria, Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordea den Nerea Karnele Lopez-Urbarri eta Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaria den Xabier Patxi Arrieta.

PROIEKTUEN ETA LAGUNTZA TEKNIKORAKO EREMUA



2018. urtean digitalizatutako zerbitzuak

Saila/OOAA	Prozesura kopurua
Ogasuna eta Ekonomia	4
Kultura eta Hizkuntza Politika	24
Ingurumena, Lurralde Politika eta Etxebizitza	18
Osasuna	11
HABE	2
Segurtasuna	7
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	6
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	24
Osalan	4
Kontsumobide	4
Enplegua eta Gizarte Politikak	2
Lana eta Justizia	2
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	3
Unibasq	2
Ura	1
Emakunde	1
GUZTIRA	115

Administrazio Elektronikoko Zuzendaritza Teknikoa

PROIEKTU NAGUSIAK

Pertsona interesdunen eta horien ordezkarien kudeaketarako eredu berria Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoko plataforman.

Administrazio Elektronikoko Plataforman (PLATEA) aldaketa sakona burutu da, plataformako tresna edo modulu ezberdinen arteko integrazioa osatuz pertsona interesdun eta horien ordezkarien kudeaketari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzarekin, interesdun edo ordezkari modura, elkarrekintzan den edozein pertsona fisiko edo juridikok bere profila du, bere harremanetarako datuekin. Eta profil hori irisgarri dago tresna ezberdinetatik. Modu horretan, edozein pertsona interesdun edo ordezkari aukera du bere harremanetarako datuak eguneratzeko edozein tresna erabiliz: eskaera-inprimakia, bere espedienteen karpeta (Nire karpeta) edo Ordezkarien Erregistrotik (OE).

Horrez gain, pertsona interesdunei harremanetarako datu horiek Eusko Jaurlaritzarekin izapidetzen dituen prozedura guztietarako "berrerabiltzeko" aukera ematen zaie. Horrela abiatzen den administrazio-prozedura berri bakoitzean informazio hau ez da berriro eskatu behar.



Giltz@ identifikazio-sistema

Egoitza elektronikoko aplikazio guztiak integratzen dira Euskadiko herri administrazioetako identifikazio eta sinadurarako Giltz@ sistemarekin

NISAE txertatzea lurralde bakoitzeko tokiko erakundeetan

Izenperekin lankidetzan, nodo horren erabilera Euskadiko Herri Administrazioaren erabilera-maila guztietara hedatu da, Foru Aldundien lankidetzarekin, aipatu nodoa lurralde bakoitzeko Tokiko Erakundeetan txertatze aldera.

Eusko Jaurlaritzako sail guztiak Erregistroen Interkonexiorako Sistemarekin (EIS) konektatzea

2017. urtearen amaieran Zuzenean izenekoan **Eusko Jaurlaritzako Sarrera eta Irteeren Erregistroa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Erregistroen Interkonexiorako Sistemarekin (EIS)** modu arrakastatsuan txertatu ondotik, Eusko Jaurlaritzako Sail eta Organismo Autonomo guztietara hedatu da. EIS sistema Estatuko Herri Administrazio guztien artean erregistroko asentu elektronikoak trukatzeko ahalbidetzen duen oinarritzko azpiegitura da.

EIS sistemaren bidez, informazioaren truke hori modu seguruan eta legearen arabera burutzen da. Horrela, Eusko Jaurlaritzako sail GUZTIEK aukera dute herritarrek leihatilari aurkeztutako dokumentazioa modu elektronikoan jaso edo igortzeko edozein Herri Administrazioetik edo Herri Administrazioetara.

Administrazioen arteko lankidetzak

Administrazioen arteko lankidetzarako eredu horren ildotik, Foru Aldundietako eta 3 hiri-buruetako Udaletako Informatika Erakundeekin lankidetzarako 2 proiektu jarri dira abian.

1. Euskadiko jakinarazpenetarako puntu bakarra eratzea.

- Hau da sistemaren xedea:
- Gaur egun jakinarazpenetarako berezko sistemarik ez duten Euskadiko Administrazioentzat jakinarazpenetarako sistema bat eskaintzea.
 - Web bidezko interfaze bat eskaintzea, non pertsona interesdunak informazioa erabilgarri izan eta Euskadiko edozein Administrazioetik igortzen zaizkion jakinarazpenak eskuratu eta azaldu ahal izango duen.
 - Euskadiko Administrazioak Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiak bultzatutako DEHú (Helbide elektroniko gaitu bakarra) helbidearekin integratzea.

2. Euskadiko ahalduentzen Erregistro bat garatzea.

Proiektuaren garapenerako blockchain sare baten sorrera planteatu da, Euskadiko Herri Administrazioen artean ahalduentzari buruzko informazio trukeko oinarritzat balia dadin.

www.euskadi.eus atarien sarea

HDFS sistemetan gordetzea

Datuak biltegitatu, aztertu eta kudeatzeko premia berrien aurrean; eta teknologia EZ jabe-dunak erabiltzera begira aurrera egiteko estrategiaren barnean, 2017. urtean zehar pilotu bat egin ostean, www.euskadi.eus atari-sareko web Edukien Kudeatzailea Big Data delakoetan oinarritutako "opensource" teknologia alternatiboetara migratzeari dagokionez, Content Management Systemaren biltegitratzea HDFS biltegitratze-kluster batekin ordeztuko prozesua amaitu da.

Migrazioa burutu da hauetarako: 300.000 eduki / 3.000 atari-orri / Informazioko 4 Tb)

Migrazioa HTTP sistematik HTTPS sistemara

2018an zehar www.euskadi.eus atari-sare osoa HTTP sistematik HTTPS sistemara migratu da, azpiegiturak jasaten duen web komunikazio eta zerbitzarien habe teknologiko osoa eguneratuz. Onurak ugari dira:

1. Segurtasun handiagoa herritarrentzat Eusko Jaurlaritzarekin elkarrekintzan denean.
2. Web itxura Interneteko berezko estandarretara eguneratzea
3. Euskadi.eus sareko webguneen posizionamendua hobetzea.

Gobernu Irekian aurrera eginez

Open Data

- Euskalmeten web itxura berritu da, infomediarioek eratorritako produktuak eraikitzeke erabil dezaketen webgune berri bat diseinatu. Proiektuak hurbilketa berritzailea suposatu du linea bidezko meteorologia-datuak agertzeari dagokionez sektoreko enpresa handiekin, esate baterako, [AccuWeather], [Weather.com], etab.
- Eusko Jaurlaritzaren araudia gaineratu da ELI (European Legislation Identifier) ekimeneara, Europa osoko Aldizkari Ofizialen elkarreragingarritasuna duena xede. Eusko Jaurlaritzak dagoeneko proiektuan barneratzen diren 4 habeak eraiki ditu, hori egin duena Estatuko lehen Administrazioa izanik, eta Europar ere lehenengotarikoa.

Gardena


Gardentasunaren alorrean Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-webgunea (Gardena) berritu da datuen interpretazioa ahalbidetzen duten datuen bistaratzeen erabilera oinarrituta. Horrek Eusko Jaurlaritza Autonomia Erkidegoen gardentasunaren sailkapeneko lehen postuan ipintzen du, datu gordinera hurbilketa berritzaile eta osagarria emateaz gain.

2018KO DATU ESANGURATSUAK. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

PLATEA izapidea

	2016	2017	2018
Jakinarazpenak	248.607	422.347	593.912
Eskaerak	74.621	69.287	143.908
Espedienteak	219.623	212.013	252.601

PLATEA Webgunea



NISAE elkarreragingarritasun nodoa

2018KO ELKARRERAGINGARRITASUN DATUAK

Transmisioak	10.592.733
Estimatutako aurrezpena	52.963.665 €

DOKUSI

Dokumentu kopurua guztira	23.545.883
Gordetako espazioa	8,93 TB
Aplikazio erabiltzaileak	210

ERP Zuzendaritza Teknikoa

PROIEKTU NAGUSIAK

Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren Bilakaera

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea indarrean sartzea indar-bultzada izan da Kontratazio Publikoa Euskadin (KPE) plataformako tresnen erabileraren hedapenari dagokionez, hauen gainean:

- Kontratu publikoen Publizitatea eta Gardentasuna (Kontratatzailearen Profila, Kontratuen Erregistroa).
- Kontratazioarako prozeduren eta laguntza-prozesuen izapidetze elektronikoa (Lizitazio elektronikoa, Lizitatzaileren Erregistroa eta Enpresen Sailkapena), Plataformaren bidez izapideak edo kontsultak egiten dituzten erabiltze kopurua bideraktuz.

Horretarako 2018. urtean zehar Ejie erakundeak prozesu horien euskarri diren aplikazioak egokitu behar izan ditu, eskatutako zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko.

Bilakaera Erabilera Azpiegitura Datuak

	Txertatutako botere esleitzaila kopurua			
	2015	2016	2017	2018
Urtearen amaieran	95	138 (+%45)	219 (+%57)	555 (+%253)
Ekitaldian zehar	24	43 (+%79)	81 (+%58)	336 (+%415)

	Argitaratutako espediente eta kontratu kopurua			
	2015	2016	2017	2018
Revasconen argitaratutako kontratuak	5.128	7.817 (+%52)	13.356 (+%52)	17.422 (+%130)
Ekitaldian zehar	1.928	3.349 (+%73)	4.683 (+%40)	12.309 (+%263)

	Informazio-sistemen bilakaera			
	2015	2016	2017	2018
Tele izapidetze erabiltzaile kopurua Revascon/Profila	818	1.017 (+%24)	1.444 (+%20)	2.335 (+%161)
Telematikoki izapidetutako espediente kopurua Kontratisten Erregistroa/KE	1.974	2.094 (+%66)	2.646 (+%72)	3.485 (+%132)
IREKIA bidez emandako gutun-azal itxien irekiera	57	50	39	238 (+%610)

Zuzendaritza Tekniko Sektorial eta Profesionala

PROIEKTU NAGUSIAK

HAEE

Solaskidegune: Aplikazio honi esker sail/erakunde bakoitzeko prestakuntza arloko ardura-dunek beren prestakuntza-eskaerak eta horien aprobetxamendua kudeatzeko aukera izan dute.

Segurtasuna

Hautesbil – Hauteskunde Datu Basea: Hauteskunde guztietako hauteskunde-datuak kudeatzeko sortutako aplikazioa. Hala, Legebiltzarrerako hauteskunde prozesua (Eusko Jaur-larritza bera) nola udal hauteskundeak, Europakoak eta orokorrak, eskumeneko organoan antolatutakoak.

Honatz helburuak:

- Egindako hauteskunde guztiak kudeatzen dira.
- Datuak Hauteskunde Webguneko Hauteskunde Emaitzetako Fitxategira (HEF) eramaten dira.
- Garatzeko hauteskunde-sistema berria Ordainketak Kudeatzeko aplikazioarekin (Hautesgune) uztartzea.
- Garatzeko hauteskunde-sistema berria Hauteskundeetako gaueko tresnarekin uztartzea.
- Hauteskunde-prozesuko Ordainketen Kudeaketa hauteskunde-lokaletan inplikatutako pertsonetara.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

Kontsumobide – Herritarren Asebetetzea neurtzeko Inkestak Sistema. Inkestak kategoriaz-zerbitzuen arabera sortu eta konfiguratzeko ahalbidetzen duen modulu berri bat sortzea, Kontsumobide kudeatzeko egungo sistemekin uztartuta, audientzia egokira igorri ahal izateko, online modulu batekin osatze aldera.

Hezkuntza - Soziosanitario arloko Zuzendaritza Teknikoa

PROIEKTU NAGUSIAK

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

BIG DATA eta MACHINE LEARNING erabiltzea Eraikinen Ikuskarpen Teknikorako eta Etxebizitzako premietarako.

EJIE erakundea oinarritzko plataforma teknologiko bat txertatzen ari da Etxebizitzako Sail-buruordetzaren Big Data ekimenei euskarria emateko. Hartatik abiatuta, gainera, Eraikinen Ikuskarpen Teknikoak burutzean jasotako datuen tratamendurako iragarpen-prozesuak ari da garatzen. Iragarpenetarako sistema geolokalizatu horiei esker eraikinetan esku-hartzeko etorkizunean egongo diren premiak zehaztu ahaliko dira. Modu horretan, informazio arras baliotsua emango da Eraberritze arloan datozen urteetan laguntzetan bideratzeko aurre-kontu-partidak dimentsionatzeko.

Illo beretik, Etxebideko erregistroan izen emandako etxebizitzako eskatzaileei buruzko informaziotik, hazkunde demografikoaren datu geolokalizatuetatik, etxebizitza sustapene-tik eta bestelako datu interesgarri batzuetatik abiatuz, iragarpen-azterketarako prozesuak burutuko dira, Euskadin etxebizitzari dagokionez dauden premiak zehaztekoak, gainera, geolokalizatuak izango dira.

Hezkuntza

“Bonba Orokorra” Esleipen Sistema berria Onarpenerako maila guztietan

Saileko eta Arartekoaren zerbitzu Juridikoen jarraibideak aintzatetsiz, Onarpen eskaerak kudeatzeko prozesua aldatu egin da, esleipena orokorra izan dadin Euskadi osorako, zen-troaren araberrako tratamendua alboratuz. Horrek Kudeaketa Akademikoko ereduaren onarpen-prozesua sakon aldatzea dakar, eta inpaktu oso garrantzitsua izatea.

Proiektua faseka ari da garatzen: 2018ko ekainean LH-rako finkatu zen, 2019ko urtarrilean Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako finkatuko da, eta 2019ko maiatzean, Batxilergorako.

Kultura

Euskarako Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren ekimenez sortutako doako zerbitzu publikoa, he-rritarrei nahiz herri administrazio eta gainerako erakundeei pertsonak kreditatuta dituzten titulu eta ziurtagiri ezberdinei buruzko informazio ofiziala behatzeko aukera ematen diena, horiek eskuratzeko aukera emateaz gain.

Erregistro honetan erakunde edo sail ezberdinek (HAEE, Hezkuntza Saila, Osasun Saila eta Kultura Saila, eta Hizkuntza Politika) kudeatzen dituzten titulu eta ziurtagirien erregistroe-tako informazioa jasotzen da.

Azken epealdi honetan, erregistro honetara exentzioak gaineratu dira. Horien bidez hi-zkuntza ziurtapenaren exentzio-mailak ezartzen dira ikasketak euskaraz burutu ondotik eskuratutako titulu ezberdinen arabera.

Osasuna

Ingurumen Osasunaren Informazio Sistema Integratua

Azken urtetan zehar, Osasun Publiko eta Adikzioen Zuzendaritzak “normalizazio” prozesu bat gauzatu du, hasiera batean, legionella, hondartza, igerileku eta kontsumorako urari dagozkion programetako ikuskarpenak kudeatzera bideratua, gaur egun pilotutza fasean dagoena Osasun Publikoko eskualde mailako hiru zentrotan. Normalizazio- eta pilotut-za-prozesuan sostengatua, Osasun Sailak informazio-sistema berri bat eratzeko agindua eman zion EJIE erakundeari, modu modularrean eraikiz joango dena. Agindu hori hiru fasetan burutuko da:

- Xede-ereduaren definizioa
- Lehen zerbitzua garatu eta txertatzea
- Gainerako zerbitzuak garatu eta txertatzea

2018. urtean zehar xede-ereduaren definizioa, sistema integratuaren arkitekturaren defi-nizio eta diseinua eta ikuskarpen-sistema moldagarri, ireki, malgu eta horizontal baten ga-rapena burutu dira. Ikuskarpen-sistemaren garapena 2018. urtearen amaieran txertatu zen eta 2019ko lehen hiruhilekoan zehar egonkortzen ari da. Ikuskarpen-sistema Ingurumen Osasun arloan egin beharreko lanketan “core” modura har daitekeenez, behin hura sen-dotuta, 2019an zehar hainbat garapen-proiektu abiatuko dira Ingurumen Osasun sistema osoa 2020. urtean amaitzeko.

BESTE ZENBAIT PROIEKTU

Gazte Aukera – Txartelen Kudeaketa


Gazteria Zuzendaritzak igorritako edo harekin zerikusia duten txartela ezberdinek kudeatu eta igortzea, esate baterako, Gazte-txartela, Ikasle Txartela, Irakasle Txartela, Aterpe-kide Txartela eta GO-25 txartela.

Izatezko Bikoteen Erregistroa

Bikoteak Izatezko Bikoteen Erregistroan izen eman, aldatu, ezeztatu eta ziurtatzeko prozedurak kudeatzeko sistema, familia politika eta aniztasun Zuzendaritzaren erantzukizuna dena.

Fidantzak eta kontratuen erregistroa

Hiri Finketako Alokairu Kontratuen Erregistroa norberak kudeatzeko Web aplikazioa (Erregimen Orokorreko eta Erregimen Itunduko alokairu-kontratuen izen-ematea, aldaketa eta ezeztapena), Eusko Jaurlaritzaren izapidetze elektronikorako Platea-Tramitagune azpiegitura horizontalaren barnean. Halaber, Fidantzak kudeatzeko egungo aplikazioaren migrazioa (fidantzen izen-ematea, aldaketak eta ezeztapena nahiz itzulketa) eta berau fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Alokairu Kontratuen Erregistroari buruzko martxoaren 15eko 42/2016 DEKRETURA egokitzea.



EAEko Izendegi Geografikoa

Proiektuaren helburua Hizkuntza Sailburuordetzari EAEko Izendegi Geografikoaren kudeaketa eman eta Internet bidez erakusgai ipintzeko ahala ematea da. Hala hartako eduki alfanumerikoari nahiz geometrikoari dagokionez.

EAEko Izendegi Geografikoak Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak (normalizatuak, dokumentatuak, kartografikoak, ahoz jasoak, etab.) jasotzen ditu, baina gainera beste-lako datu garrantzitsuak gordetzen ditu, esate baterako, herri-erakundeen izen ofizialei buruzkoak edo normalizaziorako arauak buruzkoak, horiei dagozkien udalerri eta koordenatu geografikoei buruzko datuak jasotzeaz batera.



Gaztelagun (Alokairurako laguntzak gazteentzat)

Programa honek modu paradigmaticoan erakusten du nola eraldaketa digitalak aukera ematen dion herri administrazioari bere xede-publikoarekin modu zuzen eta berehalakoan konektatzeko, elkarrekintza eta izapideak egiteko arintasuna bultzatuz. Gehienez natibo digitala den populazioko sektore bati zuzendua (35 urtez azpitikoa), eta gailu mota ezberdinetatik irisgarriak diren tele izapidetzerako eszenarioetan nahiz gizarte-sareei erreparatzen dien hedapen-kanpainetan funtzionatzera bideratuta dago. Kasu honetan, Administrazio ezberdinen arteko elkarreragingarritasunerako sistemen erabilerrari garrantzia berezia eman zaio, jasotzen diren eskaeren ebazpena ahalbidetu eta bizkortzen baitute.

INFORMATIKA KORPORATIBOKO EREMUA



2019-2021 Sistema Plana

Datozen 3 urteetarako Sistemen Plan bat burutu da, EJIE erakundeak zerbitzu berrien horniduran nahiz Eusko Jaurlaritzaren IKT Teknologiaren Konbergentzia Planaren ondorioz bere balizko bezeroak areagotzeari dagokionez dituen erronkei aurre egiten laguntzekoa.

Sistema Planak kudeaketa-sistema berriak txertatzea dakar:

- Bezeroekiko harremanean: eskariaren kudeaketa, ANS betetze-mailaren adierazleak, fakturazioa, etab.
- Zerbitzu berrien hornidurarekin lotuta: Paper-zorroaren kudeaketa, proiektuen kudeaketa, kostuen kudeaketa, etab.
- Zerbitzuen eragiketarekin lotuta: ITIL prozesuak, monitorizazioa, etab.

Software aktiboen kudeaketa

Software lizentziak horien erabileraren bizi-zikloaren ikuspegitik nahiz fabrikatzaileekin egiteko negoziazioaren ikuspegitik kudeatzeko proiektu bat abiatu da. Helburua 9 hilabetetan EJIE erakundearen dagoeneko badauden prozesuekin elkarrekintzan sartzeko prozesu bat zehaztea da, pixkanaka hartara fabrikatzaile eta produktuak gaineratuz joango garelarik, 3 urteko epean horiek guztiak prozesuan barneratuta izanik. Proiektuaren lehen urtean, era berean, gaurdaino egindako erosketak guztien bilketa bat egingo dugu eta instalatutako produktu guztien inbentario bat ere bai.



Zaintza teknologikoa

3 esku-hartze mota estali dira:

- 1 Kontzeptuzko probak**
Zerbitzu kognitiboak, Chatbot, IoT, Errealitate areagotua, Itzulpen automatikoa eta Testing
- 2 Proiektu Pilotuak**
BigData, Blockchain, OpenShift
- 3 Hedapenak**
Barnean EJIE erakundearen, askea EHUKo udako Ikastaroekin, Gipuzkoa IKT, Deustuko Unibertsitatea.

ADMINISTRAZIO ETA LANGILE EREMUA



EJIE erakundeko lantaldeen osaera

adina	gizonak	%	emakumeak	%
30 baino gutxiago	0	%0,00	1	%100,00
31-40 bitartean	19	%51,35	18	%48,65
41-50 bitartean	34	%65,38	18	%34,62
51-60 bitartean	51	%53,68	44	%46,32
60 baino gehiago	26	%86,49	5	%13,51
GUZTIRA	130	57,66%	86	%42,34

Administrazio eta Langile Eremuak 2018. urtean zehar hainbat plan eta jarduera garatu ditu, 2020 Plan Estrategikoko Pertsonen ardatzeko helburuak hedatzeko xedearekin, SGIQ sistemaren pertsonak kudeatzeko prozesuan eta Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizate Sistemari (LSOO) ezarritako etengabeko hobekuntzarako politikaren esparruan, hori guztiori genero-ikuspegia aintzatetsiz.

Komunikazio Plana:

bertan planifikatutako jardueren %98,47 bete dira

Urteko Prestakuntza Plana:

- 793 Bertaratu (% 47,41 emakumeak, %52,59 gizonak)
- 58 prestakuntza-ekintza
- Ordu erdiko prestakuntza pertsonako: 30,60 ordu
- Prestakuntza-orduak guztira: 6.095,25 ordu (%47,41 emakumeak eta %52,59 gizonak)

FUNDAE fundazioak 2017ko prestakuntza-planari eman ahal dizkion laguntza guztiak hartuta, prestakuntza arloan kreditu osoa berreskuratuta 35.172,80 euroko zenbatekoaz, berau finantzatzeko laguntza gehigarriak eskuratzearaz gain, HOBETUZ fundazioaren eskutik.

Eginahala ebaluatzeko plana:

19 pertsonak (9 emakume eta 10 gizon), hots, ebaluazioaren xede den lantaldearen % 10, sustapen profesionala erdietsi du, soldata-maila edo profil profesionala aldatzean.

Akordioak Enpresa Batzordearekin:

2018ko abenduaren 21ean hurrengo prozedura eta protokoloen bertsio berriak (Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizate eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Politikekin lotuak) onartu dira Zuzendaritza eta Enpresa Batzordeko aho batezko akordio bidez.

- Gatazkak ebazteko prozedura
- Laneko jazarpen moralaren aurkako protokoloa
- Laneko sexu-jazarpenaren edo sexu arrazoiaren ondoriozko jazarpenaren aurkako protokoloa

Akordioan jasotzen denez, dokumentu horiek 2019ko martxoaren 31n sartuko dira indarrean, horien hedapena bermatzen duen aurreikusitako esku-hartze plana burutu ondotik, nahiz hura behar bezala txertatzeko prestakuntza planifikatua egin ostean.

Laneko Segurtasun, osasun eta ongizate plana:

Laneko segurtasun eta osasun arloan 2018rako aurreikusitako 25 jarduerak burutu dira, hauek nabarmenduz:

- kudeaketa-sistemaren irismena areagotu egin da, ingurune osasuntsurantz, haren politika laneko osasun eta ongizatearen alderdiak indartuta eguneratuz, memoria bat aurkeztu delarik jardun on modura Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizatearen Institutu Nazionalak urtero burutzen duen aitortzaren ondorioetarako (emaitza ezagutzeke)
- osasuna sustatzeko programei jarraipena eman zaie gihar eta eskeletoko lesioen prebentzioaren eta bihotz-hodietako arriskuen prebentzioaren alorretan.
- Prebentzio-zirkuluen irudia txertatu da 2017. urtearen amaieran egindako arrisku psikosozialen inkestako emaitzak aztertze xedez. Inkesta horretan guztira 27 pertsonak parte hartu dute (13 emakume eta 14 gizon) eta haren ondorioz Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak adostutako esku-hartze plan bat eratu da, 2019-2020 epealdian txertatzeko 41 ekintza jasotzen dituen.

Harrera Plana:

Guztira 12 pertsonen zuzendua (3 emakume eta 9 gizon)

EJIE erakundearen berdintasun arloko esku-hartze plana:

EJIE erakundearen berdintasun arloko Esku-hartzeko IV. Plana onartu da (2018-2020). 2018. urtearen jarraipenak adierazten duenez, planaren gauzatze-maila %60,34koa da 2018ko abenduaren 31n.

2018. urtean zehar EJIE erakundeak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzailearen bereizgarria berritu du eta modu aktiboan parte hartu du Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Publikoaren Sarean, hots, BaiSarea izenekoan, eta baita Emakunde antolatutako Foroan ere.





NEGOZIOEN GARAPENERAKO EREMUA



Emandako
zerbitzuetan

7,96

puntu eskuratu
dira 10 puntutik

Negozioaren Garapenaren eremuak EJIE erakundeak Bezeroekin izan behar duen harreman-eredua zehazten du, erakundearen garatu eta eskuragarri dagoen Zerbitzuen Katalogo bat eskainiz, bere paper-zorroarekin bat datorrena.

2018. urtean zerbitzuen eskaera berri bat kudeatu dugu sektoreko sare guztiak, Osakidetza, Hezkuntza, Justizia eta Segurtasuna kontuan izanik, zerbitzu tradizional berriak nahiz Konbergentzia-koak barneratuz.

Halaber, bateratasun teknologikorako bilakaeraren barnean Euskadiko sektore publikoko organismoek zuzendutako zerbitzu bateratuak ematen hasi gara, aurrez berezko irtenbiak zituztenak, eta Eusko Jaurlaritzaren TI arloan Konbergentzia Planarekin lerrokatzearen abantailak balioetsi dituzte.

Telekomunikazioen kontratuaren kudeaketa guregain hartu dugu, telefonia finko, komunikazio mugikor, SMS mezu eta Internet alderdiei dagokienez, datuen parte ere gaineratuz, Bateratasunari begirako ikuspegi batekin, non Eusko Jaurlaritzaren baitako organismo Publiko gehienek parte hartzen duten.

Telekomunikazioen kudeaketarekin lotutako zenbait datu:

- Kudeaketa Euskadiko 30 organismo eta erakunde publikorekin, guztira 90.000 erabiltzaile ingururengana iritsiz.
- Gutxi gorabehera 2.000 Eraikin elkarlotu.
- 16.000 linea mugikor, 12.000 gailu mugikor eta 1.000 lotune-linea baino gehiago.
- Telefonia finkoko 40.000 linea eta 8.000 lotune-linea baino gehiago.
- Urtean 12.000.000 SMS mezu ingururen igorpena.
- Internetera Interkonektioa 12 Gbp-tik gora simetrikoko eta 14 Gbp asimetrikorekin.
- Bolumen ekonomikoak.
- Bezero eta Erabiltzaileen Bolumena.



Halaber, pertsona erabiltzaileak artatzeko erantzukizuna garatu dugu, esku-hartze eremu ezberdinak jorratuz:

- Ekipamenduaren zuzkidura, erabiltzaileentzako erabilgarri dauden ekipamenduen ezaugarriak hobetuz, kalitate, prestazio edo kostuei dagokienez nahiz erabilgarri egon daitezkeen ekipamendu eta teknologien aniztasunari dagokionez.
- EAZ, Eusko Jaurlaritzako Sail eta Organismo ezberdinetako edo sektorialetako (Osakidetza kasu) erabiltzaileek arretarekin lotuta eskatutako gorabehera eta premiak hasiera batean ebazten dira bertan.
- Segurtasuna eta Irisgarritasuna, ingurune teknologiko bakoitzerako sarbide-baimen egokiak finkatu eta kudeatzeko, erabiltzaile bakoitzaren premien eta eskatutako segurtasun-mailaren arabera.
- Inprimaketaren kudeaketa, zeinaren eskaintzak erabiltzeagatik ordaintzeko eredua txertatzera egingo duen, egun eskaintzen den kudeaketa segmentatutik abiatuz.
- Gorabehera larrien kudeaketa, kritikotasun eta premia handikoak izateagatik esku-hartze berezia eskatzen duten jazoerak aktibatu, koordinatu, jarraipena egin, informatu eta ixteari begira.

Erabiltzaileen arretarekin lotutako zenbait datu:

- 160.000 dei eta 130.000 txartel baino gehiago EAZ zentrotik kudeatuta.
- Gutxi gorabehera % 70 ebazpen lehen mailan.
- 68.000 ekipamendu mikroinformatiko kudeatuta.
- 9700 eskaera baino gehiago erabiltzaileen kudeaketarako.
- 4000 enpresa baino gehiagori arretan Kontratazio Publikoko prozesuetan.

EJIE erakundearen jardunaren emaitza, bere bezeroekiko lerrokatzearen ikuspegiari dagokionez, inkestak ematen duten urteko balioespenean ageri da. Horrela, inkesta horietan 7,96 puntuko kalifikazioa lortzen da 10 puntutik EJIE erakundeak emandako zerbitzuetan, aurreko urteetako balioespene gaindituz.

AZPIEGITURA ETA ERAGIKETEN EREMUA



KONBERGENTZIA PROZESUA (IKT)

2015eko uztailaren 27an Gobernu Kontseiluak konbergentzia-prozesu izenekoan Informazio eta Komunikazioko Teknologia (IKT) arloan abian jarritako ekimena onartu zuen.

Ekimen honen xedea, «BATERA» izendatu zena, IKT arloan konbergentzia-prozesu bat gauzatzen da, lotutako instalazio eta beste elementu batzuei dagokienez (esate baterako, Azpiegiturak, Komunikazioak, Lanpostuak eta Zerbitzu korporatu bateratuak -AKLZ-). Halaber, BATERA ekimeneko zerbitzuak emateko jarraitzeko eredua une bakoitzean zehazteko organo kudeatzailea izateko organismo egokiena EJIE erakundea zela ebatzi zen.



Gauzatzen ari den konbergentzia-prozesua 3 fase nagusitan egituratzen da.

GOBERNANTZA EREDUA (AKLZ)

IKT-AKLZ konbergentzia-eredu berria txertatzeko lan-metodologia eta gobernantza 4 lantalde heterogeneotan egituratzen da: DPZ Azpiegiturak, Komunikazioak, Lanpostuak eta Zerbitzu Korporatiboak.



2018an zehar dagoeneko existitzen diren zerbitzuak sendotzeaz gain (IaaS, Elkarlan, etab) erakundeetako lanpostuaren bilakaerarako lehen urratsak eman ziren, Lanpostu moderno baterantz joateko asmoarekin, Windows 10 eta o365 oinarri hartuta. Bidaia hori ekiten lehen erakundeak Eusko Jaurlaritzak eta Osakidetza izan ziren.

Bestalde, Hosting zerbitzuaz zehazteko lanari ekin zitzaion, Baterak eskainiko dituen plataformak estandarizatuz.

AZPIEGITURAK

Cloud IaaS Konbergentzia eta Zerbitzuen DPZ zentroaren bilakaera

Konbergentziako katalogoko zerbitzu ezberdinen euskarria den Datuen Zentroa bi kokapenetan banatzen da: nagusi bat Araban eta laguntzarako beste bat Bizkaian. Failover mekanismoak automatizatu egin dira berreskurapen-denborak minimizatu eta haren eraginkortasuna bermatzeko hondamendizko egoerak estali behar direnetarako zerbitzuetan ahalik eta eragin txikiena izanda.

- Failover mekanismoen automatizazioa eta eraginkortasuna hondamendi kasuetan.
- Failoverren zerbitzua pikortatzeko gaitasuna garrantzi bereziko inguruneetarako edota mantenu-leihoak programatzeko aukerarik ez dagoenerako.
- Biltegiatze zentralizatuko irtenbide bat txertatzea, baina errakuntza-puntu bakarrik gabe eta efizientziarako mekanismoekin, eta zerbitzua errendimendu-maila ezberdinen arabera emateko aukera.
- Azpiegiturako backend diseinua eta middleware espezifikoak BigData eszenarioetarako.
- Objektuak biltegiatzeko gordailu bat txertatzea (S3).
- Fitxategiak sarean biltegiatzeko scale-out plataforma bat txertatzea, konbergentziako berezko inguruneak nahiz bezeroen egungo inguruneak estaltzekoak beren DPZ zentroetan.
- Babeserako kopien plataforma zentralizatu bat txertatzea bezeroen inguruneak estaltzeko beren DPZ zentroetan (aurreko puntuan bezala)
- Zerbitzuaren zenbatespenerako ahalmena areagotzea.
- Karga fisiko eta birtualen bizikidetzarako arkitektura bat baliozkotu eta txertatzea multitenant sare birtualdu beraren gainean.
- Super erabiltzaileak kudeatzeko eredu bat zehaztea
- IaaS delakorako sareko segmentaziorako eredu operatibo bat zehaztea, autozerbitzurako modalitatea kudeatuarekin uztartzekoa.
- Autozerbitzuko atariaren funtzionaltasunaren bilakaerazko handitzea, balio erantsiko zerbitzuak eta networking konfigurazioko oinarrizko eszenarioak estaltzeko.

IT eragiketa plataforma (ITOM) txertatzea IT.as monitorizazioa eta kudeaketa barneratuz

KOMUNIKAZIOAK

WIFI hedatzea Ikastetxeen sarean

Lan sare elektronikak berria: Eusko Jaurlaritzako sareko eraikin guztietako switch guztiak aldatu dira, Lakua multzoa salbuetsita (2017an burutu baitzen hori), terminal guztietako transmisio/harrera abiadura hobetzeko, 1 Gb-koa izatera igaroz



LANPOSTUA

EUC lizentziako Konbergentzia Zerbitzua Heltzea

Joan den ekitaldian Konbergentziako Cloud IaaS delakoaren zerbitzuen katalogoa areagotu zen idazmahai birtualak (VDI) eta aplikazioen streaminga (RDS) eskainiz. Aurten, lehendabiziko bezeroak gaineratzeaz gain, plataforma horren funtzionaltasuna areagotu da. Horrela, hondamendien aurrean babesteko gaitasunak (DR) eman zaizkio negozioaren jarraipenerako ezarritako betekizunak betetze aldera.

- Babesa DR delakoaren mekanismoekin, bigarren mailako gunearen gainean emandakoak.
- Mugikortasuna kudeatzeko plataforma (EMM) txertatzea, multitenant erakoa, eta sareko segurtasunaren irtenbide horizontalarekin integratua.
- Legacy aplikazioak birtualtzea Windows 10 erabiltzaile postuak txertatzea ahalbidetzeko.
- Osakidetzako Lehen Arretako RDS ingurunearen egokitzapena, pilotutza eta hasierako hedapena.



Elkarlan lankidetzarako konbergentzia-zerbitzua: erakunde berriak gaineratzea hibridazioa areagotzea microsoft office365 txertatuta.

Hezkuntza arloko posta Cludera migratzea: Hezkuntzako 30.000 posta-kontu inguruak, hezkuntza.net, irakasle.eus eta berritzegune.eus domeinuetakoak, Microsoften lainora migratu dira. Migrazio horrekin biltegitratzeko ahalmena hobetu eta kostuak murriztea erdietsi da, izan ere, Microsoftek posta-kontuak hezkuntza kolektibora doan hornitzen ditu.

Windows 10 migrazioa Eusko Jaurlaritzaren Sarean: 2018ko otsailaz geroztik Eusko Jaurlaritzako Sare Korporatiboko postuak migratzeko proiektua abiatu zen oinarritzako software maketa berri bat zehaztuta eta aplikazioen probetarako laborategi bat instalatuta. 2018ko azaroan proba pilotu zenbait burutu ziren 200 PC ingururekin eta 2019ko urtarritik aurrera lanpostuen migrazio masiboa abiatu da, 2019. urtearen amaiera amaitzea aurreikusten dena.

Office 365 txertatzea Eusko Jaurlaritzaren Sarean: 2018ko urrian/azaroan 100 pertsona prestatu dira office 365 lankidetzaren gunearen dinamizatzailer modura Eusko Jaurlaritzako Sail eta Organismo Autonomo ezberdinak. Halaber, 100 prestakuntza-pilula inguru egin dira 2019ko apiriletik 2020ko abendura bitartean egingo den presentziako prestakuntzaren osagarri. Prestakuntza hori hiru lurralde historikotan burutuko da, euskaraz eta gaztelaniaz, eta izango ditugun 2 erabiltzaile-profiletara egokituko da. Jeneralista eta Aditua.

ZERBITZU KORPORATIBOAK

Plataformen Konbergentzia eta Estandarizaziorako Hosting Zerbitzua

Konbergentzia Planean parte hartzen duten organismo ezberdinetako azpiegitura sendotzen duen IaaS plataforman sostengatuta ematen diren zerbitzu nagusietako bat Hosting Zerbitzua da. Zerbitzu honen bidez bezeroek beren inguruneetako EJE erakundearen aldetiko administrazio eta eragiketa kudeatuaz goza dezakete.

Halaber, bezero bakoitzaren egungo inguruneetatik migrazioak modu masiboan eta eraldaketa minimo eta gradual batekin egin ahal izateko mekanismoak ematen dituzte, sakonagoa izaten joango dena balio erantsiko funtzionaltasunez gozatu nahi den heinean.

Zerbitzu honen onboarding delakoa aipatu migrazioaren kontsulta-egite batean oinarritzen da eta middlewarearen geruzetan eta sistema eragilean nolabaiteko estandarizazio eta egokitzapena jorratuz, trebetasunak erakunde bakoitzean modu efizientearen eman ahal izateko beharrezkoak.

- EUSTAT eta Justizia Sailarentzako Hosting Zerbitzua prestatzea
- BBDD Oracle plataforma txertatzea, erabilgarritasun oso handiko inguruneetarako arkitekturaz prestatutakoa.
- WebLogic Server eta Apache konfigurazioa kudeatzeko plataforma garatzea
- Bezeroen inguruneetako eta konbergentzia zerbitzuetako IT Kudeaketa orokorrerako zeharkako Plataforma txertatzea.

Justizia Administrazioaren Konbergentzia

Eusko Jaurlaritzan BATERA ekimenaren bidez planteatutako IKT arloko konbergentziari dagokionez, 2018. urte honetan ibilbide-orri bat ipini da abian, 2017an egindako Kontsulta-egite baten ostean sortua (IT egoeraren azterketa Justizian, Batera plataformarako eraldaketa eta konbergentziarako estrategia bat finkatzeko).

1. Justiziako Hostingerako azpiegitura teknologikoa eraikitzea (2018)
 2. Eraldaketa ingurunean plataforma eta produktuen proiektu pilotu bat eraikitzea, eta sistemen migrazioa (2018)
 3. Eraldaketarik gabeko sistemen konbergentzia (2019)
 4. Informazio-sistemen konbergentzia eraldaketa eta higienizazioaz (2019)
 5. Aplikazioen bizi-zikloa kudeatzeko eredu berri bat hartzea (2019)
 6. Justiziako informazio-teknologiaren eragiketaren kudeaketa eraldatzea (2019)
 7. Justiziako informazio-teknologiaren kudeaketa (2019)
- Alor honetan 2018ko datu esanguratsu modura, Justizia eta Egoitza Elektronikoko Presentziazko Webgunearen Eredua (PlateaWeb-ean oinarritua) Zehazteko Proiektua eta Justiziarako Elkarlan Lanpostu Korporatibo eta Posta proiektua ere nabarmen ditzaakegu.

Balio Erantsiaren Zerbitzua txertatzea: Barneko DNS

Software hedapenak kudeatzeko multitenant plataforma txertatzea (ALM)

GIS Plataforma korporatiboa: ArcGis Server produktuaren 10.6 bertsioa txertatuta GIS plataformaren arkitektura birzehaztu da erabilgarritasun eta kontingentzia handia izan dezan, nahiz baliabideak gaineratzeari dagokionez arintasun handiagoa izan dezan egoera jakin batzuetan errendimendu-gailurrak estali ahal izateko.

Itxaronaldiak Kudeatzeko Plataforma: Orchestra softwarearen 6.2 bertsioa (Qmatic) txertatu da eta abagunea baliatu da Eusko Jaurlaritzan RRGG zuzendaritzetara eta Zuzeneanera eta Lanbideren Organismo Autonomora eskaintzen zen zerbitzua bateratu eta hobetzeko. Hobekuntza honakoa izan da:

- Softwarearen funtzionaltasun berri bat aprobetxatu da gorabeheraz ohartarazteko alerta goiztiarra (08:00) eskaini ahal izateko, hura bulegoak ireki aurretik (09:00etan) ebatzi ahal izateko.
- Hardware stock ohikoago bat izatea ekipamenduetako funtzionamendu okerrak azkarrago ebatzi ahal izateko.
- Maila ertaineko PC guztiak goi errendimenduko PC gailuekin ordeztzea

Halaber, garapen bat burutu da Lanbideko bulegoetako aurretiko hitzorduarekin elkarlotzeko.

PROIEKTU PILOTUAK

- Mugikortasuna kudeatzeko Airwatch plataformaren erabilera kasuak (EMM)
- Super erabiltzaileak kudeatzeko plataforma txertatzea.
- Urruneko egoitzetan sakabanatutako zerbitzarien babes-kopiak WAN bidez zentralizatzea.
- Overlay EVPN/VXLAN multitenant data center sareak switch fisikoen gainean.
- Azeleragailu grafikodun (GPU) zerbitzariak Konbergentziako Cloud zerbitzuan, prozesu aldetiko premia intentsiboko aplikazioetarako.



ALDERDI EKONOMIKO GARRANTZITSUAK



Ejie berezko bitarteko pertsonifikatu modura hartzen da Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioaren arabera.

2018ko ekitaldian Sozietateak burututako jardueren portzentajea, bote-re esleitzailak edo hark kontrolatutako bestelako pertsona juridikoek aginduta egindakoak, %99koa izan da. Azken hiru ekitaldietako batez bestekoa %99koa izan da.

Ejie bere salmenta kopurua modu adierazgarrian areagotzen ari d, 2018an 2016an baino % 0 gehiago, EAEko informatika-zerbitzuen konbergentzia-prozesu batean murgilduta dagoelako. Hori guztiori eskuratutako sarrerak errentagarri egiteko helburu nagusia mantenduz, aurrekontu aldetiko oreka bat mantentze alortuz.

Ejie erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren baitan %100ean dagoen sozietate publiko modura, ez du etekinak lortzearekin lotutako helbururik, eta arlo honetan bere helburu nagusia eskuratutako sarrerak errentagarri egitea da, sarrera eta gastuen arteko oreka bat erdietsiz.

1998az geroztik Ejie erakundeak autofinantzaketari begira dagoen finantza-eredu bat du.

Ejie auditoretzak egin eta Eusko Legebiltzarrean onartzeko aurrekontuak aurkeztera derrigortuta dago.

Ejie erakundearen magnitude nagusiak 2017 /2018 (milioi euro)

	2017	2018
Salmentak	91,2	107,1
Beste diru-sarrerak	2,6	3,6
Gastuak	93,8	110,7
Zerbitzu informatikoen erosketa	54,1	66,9
Langile-gastuak	13,4	13,6
Ustiapeneko beste gastu batzuk	21,6	24,2
Amortizazioak	4,7	6
Aktiboa orotara	57,3	60
Ibilgetuak	14,7	14,4
Ukiezina (lizentziak)	2,5	3,8
Ekipamendu informatikoak (zerbitzariak)	8,7	7,5
Ibilgetutako gainerakoa	3,5	3,1
Berezko funtsak	15,5	15,5



Eusko Jaurlaritzaren
Informatika Elkarte

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco

*Euskadi,
auzolana*



EJIE S.A.
Avenida del Mediterraneo 14
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)

945 017 300
ejie@ejie.eus
www.ejie.eus